

# ELERTI LITERATURIA

## AGIREZABALA'TAR TOMA TALOGINTZAN TXAPELDUN

1984'gar'en urtean «Kirikilho Sari» rako  
«Euskaltzaleak» bazkunak Lafakoetxea'tar  
B. Yon'en idazlan auxe berezi du.



Z akit asafatu, gazte-lagun maite, ire gauzetan sartu ba nadi; gauza txar lotsagafirik esatera enaloak, ezta ire izen garbiari orbanik txikienik ezartera be. Nire asmoa ira antzea, ire trebetasuna Euzkadi zear zabaltzea dok. Orainarte Gorbei'ko lar, atxarte, idetza ta pagadletan bakafik az ezagun; ire talo bardinbakoen bafi Gorbei'ko artzai-lagunak ez bestek etxakik eta ori etxagok ondo. I Gorbei'ko artzai guztien artean talogintzan buru az; etxagok oretan iri urik emotekorik. Artzai guztiak txapeldun autortuten aue. Pindar'ek naiz Birgili'k ire bafi yakin izan ba'loek euren olerkirik onenak iretzako izango zoazan, Niri Yaungoikoak olerkari izaterik etxaustak emon, baiña Pindar edo Birgili edo beintzat gure Lizardi ba'nintzok, nire olerkirik onena iretzako litzatekek; ofaitifio, olerkari izan ezafen, ire antze be-degar (1) ori Euzkadi-zear al dodan eran zabaldu-beafean naiagok.

Leien, irakurleai i nor augun labur labur azaldu egin bearko, bear bada areik nik baiño begi zofotz zoliagorik eukita ire antze bereziaren sustafa ta zegaitia eure izakeran idoroko yoek eta.

Irakurle maite. Toma ez dogu gizon andi, ezta kaskar-mefo be, txiki baiño: aragiz igar-zimel, begi-baltz, txarakea (2) naiz agin adafa baixen

(1) Caracteristiko.  
(2) Lefa menuda.

zal, mimena (3), baixen bigun: Gorbeia'ri gaina azeririk bizkoñenak baiño arifñago ta onek baiño neke gitxiagogaz artzen dautso; arnasestua zer danik eztaki; zain utsa da. Zutunik, buruagaz orpoai ukutuko leuskioe. Artzai-makileari bañen bañenetik, luñari deusola, eskumeagaz elduta aren soin biufia, sugearena bai'litzan, besapetik batetik bestera igaroten bein baiño geiagotan neronek ikusi dot, oiñak euren lekutik zirkiñik egiteke. Azufik eztaukala dirudi. Arabarñak laññetarako (4) beofen bat mendimendian oratu (5) gura dauenean gure Toma lango lagunik eztaue aurkituko ez Gorbei osoan, ezta aragoan be; aren zango zimelak beofik uxoen (6) ta bizkoñenarenak baiño bizkoñagoak dira.

Or akust orain Aldaminpe'ko zotiez estalitako txagola apalean zubilgaifñean (7) yafita, iztar-artean talo-askeagaz; or erakutsiko dok ik ire antzea.

Ardiak batu ta lafaratu dozak, artesiari atakako (8) txarakea kenduta; gaueko amañak dozak gesu (9) beten eta onazkero goixeko amañetan egin doan esne-yana gorabera ire urdaila-zofia artega ta usika daukak. Ni be gau onetan ire maikide izango nok, ire talo entzutetsuak ezagutzeko gogoak onaxe ekañi naiok eta. Or aldamenen dokan zofoko arto-urun, ufea baixen beilegia, ire ama urduri-zoliak Lambreabe'ko Eñotatik eroanda azpiñean eralgi (10) ta gatz biñduagaz garotua dok ufean, ik eure bizkafean Aldaminpe'ra ekañia. Gaur askara urun-eskutada askotxo egozten dozak: gose az ufean. Nik i lango gizon zimelak aixe utsez bizi diriala uste naioan, baiña dakustanez uste ori okeña zoan. Urunik (11) asko dok or, mutil, Aldaminpe'ko artzai guztientzako taloak egiteko be, ala ni arako Omer'en aldiko gizatzar begi-bakar ta aparitzat i lango gizon bat gitxi euenetarikoen bat nazala uste dok? Neuk be urdaila-zofia bizirik somatzen yoat baiña eztok ase-eziña. Ik eragoiok eure lanari bai? ta nik ik taloak egiten daragoioan artean ire lan gafantzitsuori, bitarteko antzo, i ezagutzen ez auenai azaldu egingo yautset...

Gure talogin ospatsuak askako urun-piloaren erdian sakostea (12)

- (3) Mimbres.
- (4) Para la era.
- (5) Apresar.
- (6) Pugaz.
- (7) Tronco.
- (8) Portillo.
- (9) Momento después.
- (10) Cerner.
- (11) Harina.
- (12) Hondonada.

eginda txoletagaz (13) sakostara ura egozten dau apurka, eskumeagaz bien bitartean uruna oratuta; askako urun guztia ora (14) beilegi egiñik gelditu da ta an daragoio gure talogin bardinbakoak ora ori igurdi (15) ta igurdi; orea geroago zalago egiten da; Toma'ren atz-bitarteetatik urteten diria: urézko ora-zefendak igurdirik asko ta taloak egiteko gertu dagozala iragarten daue. Gure talogin aituak artzen dau askatik ora moltso bat eta esku artean zabaltzen asten da; oreak orain txifintola lodia dirudi; emakume baseritafak larunbata goixean labara sartzen dauen opilaren antza dauko; geroxeago ilargibete, beilegia dan lez zuria ba' litz. Nozik-bein talogiñak esku bata askearen alde batean dagon uretan busti egiten dau, oreak eskuari eldu eztagion. Talo biribila bein esku batetik bein bestetik dingilizka dago; oraintxe ausi ta lufera yausi bear dauela dirudi ta Toma'renak ez beste eskutatik yausi litzateke. Gure taloak azal bi ez besterik eztauko; bere alde batetik zear sutargiaren laguntasunagaz talogiñaren beste aldeko belaua ikusi dakust, taloa leiar gardena bailitzan. Talo biribil biribila zabaldua dago talogiñaren eskuzabaletik dingilizka uratu bear lañan, baiña talogiñak uratzeko astirik eztautso emongo; eltzen dautso beste eskuagaz supuruan berotzen dagon taloburdiñeari ta onen gaiñean an doa berau beteko talo me-mea suaren ganera, onen beroagaz azpi aldeko azala egin dakion. Azal bata egin yakonean, artzen dau talogiñak talo burdiñea kirtenetik eta taloa beste eskuan artzen dau; taloa ta talo-burdiñea eskuz aldatuta, ta atzera onen gaiñera doa, beste aldeko azala egin dakion. Taloa azalak eginda dago, talo-burdiñekoa egin da; ilargibetea dirudian taloaren azaletan an-or-emen goriune ta baltzuetxoak agiri dira: suak toki batzuetan gogofago yo dau urfan. Orain azal utsezko opila txingarfen aurfan zutun-zutunik barik apur bat oker yafita dagon burdinmera doa, an efe-amaitu daiten. Efe danean, Toma'ren taloak ezetariko mamirik eztauko; azal utsa da ta azalok suak afo eginda dagoz. Beste taloak lelengoaren bide berbera yafaituko daue...

Maskilua (16) supuruan dago artesne edura baixen zuria ertzetaraiño beterik, azpitik txaraka-abaren gar biziak berotzen dauela; gar gorizken artean oztaozta agiri da nozipein eta ofaitiño geldi dago, abeari lotuta

(13) Vasija de madera.

(14) Masa.

(15) Salar.

(16) Caldero pequeño.

sutan efiten dagon zifiauslerik gogofen eta setatsuenta baillizan. Askea talo-zatiz beterik dogu, eurak beratuteko esnea noz egosiko begira; bi-tartean ba-dogu zeri ekin. Gura aifia gaztae dauku txagolan; gaztanolak ganezka dagoz; eginbari azal-zuriak batzuk, azal-ori eginzafak besteak. Taloa ta gaztaia bai diriala gozoak, alan be goseak ilik dagonarentzat! Ia gazta bana garbitu dogu; gaztaia gaz taloa barik, taloagaz gaztaia, taloa yaten dogula esateko aifia. Esneak irakin dau ta Toma'ren begi zoliai eskefak sutara igesi eztauskunean. Artesnea, alan be udan, lodia izaten da-ta, urik erantsi ezik afaukea egiten yako; gureari etxako egin, ura erantsi yakolako. Maskilukada-esnea askara doa talo-zatiak beratzen. Ezpelezko zali bana artuta laster garbituko dogu askakoa be. A or Gorbeia'ko artzaien aparria....

LAÑAKOETXEA'TAR B. Y.





# YAKINTZA

BIĒROTĪK BEINGO ALDIZKINĀ

## REVISTA DE CULTURA VASCA

### DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

21'GARĒN ZENBAKIA. 1936'ko, LOREIL-GARRAĀRĪĀ N.º 21. AÑO 1936. MAYO-JUNIO

#### AURKIBIDEA - INDICE

##### ELERTI-LITERATURA

<i>Lafakoetxea</i> 'tar B. Y.—Agifezabala 'tar Toma talogintzan txapeldun.	Pág. 163
<i>Azkue</i> 'k R. M.—Euskaleñi-Yakintza .....	• 167
<i>Ohienarte</i> .—Ohienarten gaztaroa, neurtitzetan .....	• 170
<i>Tagore, Rabindranath</i> .—Ilberñi (Sabiaga'k euskeratua).....	• 181

##### IRAZKINTZA-PEDAGOGIA

<i>Olano de Alzo, M</i> .—Orientaciones para el estudio científico del Bilingüismo en el País Vasco .....	• 185
---	-------

##### EDESTI-HISTORIA

<i>Guerra, Juan Carlos de</i> —El Canto del Libiri.....	• 187
<i>Zabala, Angel de</i> .—La rebelión .....	• 191

##### LEGE-YAKINTZA - LEGISLACIÓN

<i>Aldamin, José de</i> .—Vitoria y Arana Goñri .....	• 202
---	-------

##### GIZARTIZTI-SOCIOLOGIA

<i>Thalarnas Labandibar, Juan</i> .—Origenes de la Democracia Vasca ..	• 222
--	-------

##### EUSKALTZALEAK'EN EKINTZA - ACTIVIDADES DE EUSKALTZALEAK

El magnífico III Día del Teatro Vasco ..	• 257
VII'gn Olerti-Eguna.—VII Día de la Poesia .....	• 240

##### GRABADOS

<i>Lafakoetxea</i> 'tar B. I. «Kirikiño Saria»'ren irabazlea .....	• 176
Presidencia y público durante el solemne acto literario de San Telmo.....	• 177

IDAIZKOLA ETA BANAKOLA - DIRECCION Y ADMINISTRACION

**Euskaltzaleak**

DIPUTACION PROVINCIAL (SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS)